



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-03-14

VIII. URTEA 1952. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

«Aurkaria behar duzu eta etxekoa engainatzen duzu jokatzeko»

TOLOSA Ramon, Sabino eta Iñaki Etxeberria anaia tolosarrek afizio bera dute: xakea

GIPUZKOAKO TXAPELKETA Orain gutxi bukatu den taldekako lehiaketan mailaz igo da Tolosa-Ibarra 6-7



Ibai Salasek irabazi zuen lasterketa; bigarren Ruben Fernandez izan zen eta hirugarren Fernando Grisalba. E. EZEIZA

XXII. INSALUS SARIAN DENA IRABAZITA LIDER DA IBAI SALAS

LIZARTZA 21 taldetako 114 txirrindularik hartu zuten parte atzo jokatu zen afizionatu mailako Lehendakari Txapelketako lasterketan 5

Biga guztiek aurkitu dute jabe berria

TOLOSA Atzo goizean Ferialekuan egin zen VIII. Biga Enkantean baserritarrek eramandako abelburu guztiek izan zuten eroslea 4

Hausnarketa, eztabaida eta festarako eguna

ALDARRIKAPENA Tolosa eta Ibarra gazteek jardunaldi independentistak burutu dituzte 4

ILEAPAINDEGIKO
GAIK

EDERGINTZA

Santa Klara, 9 • TOLOSA • 943 67 19 30

K Komikia

Gorka Salaberria

LABek jangeletako grebarekin jarraituko duela esan du

ERREDAKZIOA

Jangeletako grebaren harira herenun patronalarekin izandako batzarrean aurkeztutako negoziatzaioarako egutegia onartu duela esan du LABek. «Patronalaren jarrera eta emandako erantzuna ikusita, uste dugu duela urtebete exijitzen arigaren negoziatzaioari ekiteko aukerak badaudela; hala ere, ondo balioztatzen dugun jarrera izanda ere, jarrera hutsean gelditzen da, ez baitugu gure proposamena negoziatzeko konpromiso irmorik ikusi patronalaren aldetik», argitu du sindikatuak.

Horiek horrela, deitutako grebekin jarraituko duela esan du. «Martxoak 16ko mahaian negoziatzaioak desblokeatzeko eta aurrera egin ahal izateko erantzuna izango dugulakoan gauden», gaineratu du LABek.



G Gutunak

Iritzi publikoari

Gorostidirentzat etorkizunerako irtenbide bat aurkitzeko asmoz, ELA sindikatuak edozein enpresarik atseginez eskertuko lukeen lan zikina egin du azkenean: langileen aurrean 57 urtez gorakoen kosterik gabeko kaleratzeak bulzatu eta defendatzea. Honez gain, ahal den neurrian etorkizuneko karga sozialak gutxitzeko, ELAK tramite lotsagarria aurkeztu eta garatuko duela esan du.

Horren arabera, FOGASAREN kalteordaina inbertitzea onartzen ez duten guztiak eta proiektuarekin, «beren proiektuarekin», bat egiten ez dutenak, beste inungo alternatibarik gabe kanpoan geratuko dira, baztertuak, zuzenean langabezia.

ELAK azken langileen batzarrean onartutakoari erantzunez, Gorostidin ez daude denentzako irtenbideak, beraien kalteordain osoa emateko prest dauden guztiak baizik. Horren truke, gehitu beharko litzateke, lanpostu batetarako zalantzazko aukera lortuko luketela. Hau da: beraien lanpostuak aurrerantzean egongo

den lanaren arabera izango da, hau da lan asko, gutxi edo batere ezaren arabera.

Horrela bada, 57 urtez gorakoak izateagatik kaleratutakoak gehi FOGASAn ez inbertitu eta «beraien proiektua» ez konpartitzeagatik kaleratuak: 167 langiletik 68 lagun geratu dira baztertuak. 68 lagun kaleratu, langabezia eta inongo laguntzarik gabe; asko lanmerkatuan berriz sartzeko aukera urriarekin edo aukerarik gabe. Baina hau ez da garrantzitsua ELAko arduradunentzat. Ez dago protestarik. Ez dago borrokarik edo erreibindikaziorik. Lorpen egokiak bilatzeko batasun sindikalera asmorik ere ez dago. Egia da ELAK gehiengoa duela, eta azken urte honetan beren erara erabili dute: disimulorik gabe, prepotentzia. Hala ere, honelako larritasuna duen gai bat, hainbeste langileen etorkizuna kasu, ezin da aztertu gehiengoa duen taldearen iritzi bakarretik, nahita partaidetza ar-

duratsutik alde batetara utziaz gainontzeko iritzi guztiak, gehiengoa izanda ere.

Langileen erreibindikazio-inpultso baten faltan, badirudi ELArentzat funtsezkoa izan dela bere ekintza sindikalaren aurpegi pobregarbitzea eta proiektu bat bulzatzeara agian, egun batean langile batzuen aurrean beren enplegua kontserbatzeko irabazi-emaitez bat erakustea ahalbideratuko die, beste gai edo eskubide batzuk kontutan izan gabe. Sindikatu sibilistak enpresari izatera jolasten; nork daki etorkizun ez hain urrun batetan beraien buruekin enpresa-hitzarmen bat, edo konbenio bat negoziatzen ez ote ditugun ikusiko?

Ausardia izugarria dute: beraien lorpena propaganda titular handiz aurkezteko bezain lotsagabeak dira, gezur eta manipulazio interesatuez baliatuz, eta errealitatea gorde besterik ez eginez. Noiztik dira «aurrejubilazioak» beraien

lanpostuak uzteagatik INOLAKO konpentsazio edo laguntzarik jasoko ez duten 57 urtez gorakoek kaleratzeak? Zergatik deitzen die «borondatezko bajak» bideragarritasun oso zalantzazkoa duen lan proiektu batetan FOGASAKo kalteordaina inbertitzeko prest ez egoteagatik bakarrik kaleratzeagutuna jasotzen dutene? Zeri buruz ari da ELA lotsagabe esaten dutenean «enpresatik irteera erraztuko diote aurrejubilazioa har dezaketenei eta boluntarioei», argi badakite beraiei, afektatuei, ez zaiela inolako errezasunik eskaini? Nahiko gezur esan dituzue, egia desitxuratu duzue eta iritzi publikoa nahasi nahi duzue, hitz eta terminoen zentzua, nahita, aldatuz.

Bestalde, beren proiektua, zailantzarik beteriko urtebeteren ondoren langileen batzarri etorkizunerako lan-aukera modura aurkeztu dutena, inoiz ez da zehaztu eta proiektu horren aldeko apus-

tua egiteak duen arriskua ulertu eta neurtzeko termino garbieran adierazi. Duen garrantzia handia izanik ere, ELAK ez du egoki ikusi proiektuari buruzko ia informazioirik ez partekatzea langileekin, are gutxiago bideragarritasun aukera errealei dagokiona. Horrela bada, lehen aipatutako ekintzez gain, proiektuak, «beren proiektuak», orain arte aurkeztu duen sendotasun eta bermerik hobena langileen zati bat fede ekintza batetan nahastea da, lan-ahentura ausartegi batetan, agindutako laguntza instituzionalak iristeko zain, lanurte askoren ondoren esku artean geratu zaien gutxia publikoa nahasi nahi duzue, hitz eta terminoen zentzua, nahita, aldatuz.

Benetan, ELA bezalako sindikatuak ez dugu enpresari elkarretik behar beraien bideragarritasun baldintzak ezartzeko. **Mari Mujika.** Tolosaldeko LAB.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria.** Sukaldari, zerbitzari, okin edo gozogile bezala lan egin-gu nuke. Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbakira: 662-49 40 78.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko komunikabide batek
Kazetaritzan edota
Euskal Filologian
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a **tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info** helbidera

Desagertzearen liburua XII



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Nora zoazte txorinuak? zuek behintzat ba duzue nora joan...

Cristobal Kolonekin mastila handian zihoan marinela eskal-

duna omen zen, hark ikusi zituen inork baino lehen Ameriketako lur berriak eta bat-batean esan: LURRA! Beste batzuek esaten dute, URRRA! esan zuela.

Nire uharte-itsasontzi honetan nahiko lurra ikusten dut eta benetan gustatuko litzaidake alderantziz izatea eta benetako eskal-jendea ikusiz URRRA! esatea. Hegazti errarien moduan gutako batzuk pausatzen joan ginen geure pentsamenduetan, ikusirik, ekonomia, Herriko gobernuaren azpi egituraren ardatz nagusia zela.

Hemen betidanik geldirik, lehen ez genuen gehiegi begiratzen

zerura, orain beste erremediorik ez eta hainbeste txori ikusiz preso sentiarazten gaitu.

Xoxo beltz bat banuen... kaiolan sarturik...

Garaia izango da txoriarena, udaberria jadanik alorstorreko eskaile-ra luzeetan dago, bele beltzak ku ku, ku, ku leihoetan...

Batzuk diote arbola txoriaren enbiritan bizi dela ezin duelako hegan egin, baina nik diot norbera-ren patua ez dagoela aldatzerik.

Kaioen orruek alegeratzen dituzte ene egunak uharte honen kostaldean. Nola bestela burua bere tokian mantendu, beraiek in-

hizketan ez bada? Gaua iristen denean ezin beldurrik sentitu, gauaren iluntasuna ez baita itsukeria, ikus-ikas nahia ez-arengatikoaan datorrena.

Goizian argi denean... ene leiho egian... txori bat pausatzen da eta... goratik hasten kantan.

Dagoeneko gerezi ondoek loretan hasi dira eta argi dago naturaren edertasuna kontsola gaitzen egina dagoela.

Askotan nire barne pentsamenduetan dauden harkaitzetan eseri eta nire urruntasunera begiratzen dut, kantatu nahian, hegan egin nahian, nire bizitzaren patutik alde egin nahian eta halako batean, han urruno sagarraren, adararen puntan, puntaren puntan... pausatuta eta xiruliruli xiruliruli,

Herri gaixoa betidanik boterearen borroeroen eskuetan, nortasun eta kulturaren egoak moztzen bazizkiguten... ez genuen alde egingo, ez baitzuten txori-herria maite.

Beti betiko leloa, gustatu ala ez eta ni, txori erreseinula, udan kantari...

Beraien kanta betidanik ezaguna izan dugu, eta noski ez da aldatu.

Zozoak galdu dirua, dirua galdu zozoak...

Zozoak galdu gobernu, gobernu galdu zozoak...

Zozoak galdu euskara, euskara galdu zozoak...

Zozoak galdu herria, herria, dirua, gobernu, euskara BUURUA... Erdaraz kanta, erdaraz txirula... eskiriol zozo guztiak!

Z Zurea da hitza info

Topic-en ezin euskaraz hitz egin

Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen emanaldia ikustera joan nintzen Topic-era. Asko gustatu zitzaidan eta oso gustura egon nintzen. Hori bai, sarrera erostekoan, bertako langileak euskaraz ez omen zekien. Ez dut ulertzen nola den posible Topic-eko sarreran dagoenak euskaraz ez jakitea. Horrenbeste urte gure hizkuntzaren alde borrokan eta etxean bertan, Tolosan, gazteleraz egitera behartuta, non eta Nazioarteko Zentro berri honetan. Benetan salagarria iruditzen zait.

Tolosar bat.

Eskerrikasko!

Adunan sortu berri den Presoen eta Iheslarien Aldeko Taldeak biziki eskertzen die aurreko larunbatean, martxoaren 6an, Txulobi Elkartean antolatutako presoen aldeko bertso-afarian parte hartu

zuten herritar guztiei. Jexux Mari Irazuk eta Aitor Mendiluzek bertsoz alaituta, giro polita sortu zen afaltzera bildu ziren hogeita hamar bat lagunen artean. Halaber, Presoen eta Iheslarien Aldeko Taldeak bereziki eman nahi dizkie eskerrak Adunako Muxkil Elkarteari, Txulobi Elkarteari eta Ezker Abertzaleari, bertso-afari hori antolatzen laguntzeagatik, bai eta Herrera de la Manchako kartzelan preso dagoen Mikel Garmendia preso vilabonarrari ere, gutun bat bidali

zizulako han bildutakoei. Erantzun gisa, afarira bildutako guztiek postal bana idatzi zieten eskualdeko preso guztiei.

Presoen eta Iheslarien Aldeko Adunako Taldeak jakinarazten dizuete aurrera begira ere ekin-tzak antolatzen jarraituko duela: besteak beste, hil bukaerako ostiraletako kontzentrazioak eta beste hainbat ekimen. Herritar guztiak parte hartzera gonbidatuta zaudete.

Presoen eta Iheslarien Aldeko Adunako Taldea.



Elurraren eragina

PABLO ALBERDI

Aste hauetako elurteak eta hotzak azokan eragin dutela asmatu dezake ia edozeinek. Egia esanda, onerako eragina nabarmena izan zen atzo Zerkausion.

Ja barazki guztiei betetasun eta tamaina puntua asko egin die gora, eta kopurua ez du batere behera egin. Aurreratu zigutenez aurten go udaberriko barazkietan eragina

nabarmenduko dugu egutegia ikusitakoan. Barazki asko atzeratu egin dira elurra eta hotza dela eta, baina alde baikorra ere nabarituriko dugula esan ziguten.

Atari kalean ere izan ziren fruta-arbolak eta baso espezieak; aurten, beste urteetan baino denbora gehiagoz egongo dira aukeran, eta oraindik oso momentu onean gaudela landatzeko.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Azalea	7,00	10,00
Zainzuria	2,80	-

BERTAKO PRODUKTUAK	Perretxikoak
Onddoak potean	9,00 -

Fruta	
Kiwia	3,50 -
Gaztaina	3,00 -
Intxaurra	2,50 4,00
Matxakanak	5,00 -

Errezil sagarra	2,00	4,00
-----------------	------	------

Barazkiak (sorta)	
Tipula	0,80 1,00
Porruak	1,00 4,00
Espinaka	2,00 -

Barazkiak (unitateak)	
Letxuk	1,00 -

Besteak	
Azukrea	3,35 -
Ogia (200 gr)	2,55 -
Arrautzak	3,50 3,00

U Urteurrena

I. urteurrena

JOXE ANTONIO AZURMENDI OLARAN

Gogoan zaitugu

Zure emaztea, seme-alabak, bilobak eta lagunak

Urteurreneko meza GAUR, IGANDEA, eguerdiko 12:30ean izango da Beasaingo ANDRE MARIA parrokian.

BEASAIN
2010eko martxoaren 14a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Emakumearen Eguna Albiztur eta Villabonan

GIZARTEA Pasatu berri den Emakumearen Eguna dela eta, jai giroa nagusitu zen atzo Villabonako kaleetan. 12:00ak jo bezain pronto, Berdura Plazatik abiatuta, 30 bat laguneko koa-drila trikopoteoan ibili zen herriko tabernetan zehar. 14:30ak aldera Zizurkilgo Olentzo jatetxera gerturatu ziren, bertan, bazkari eder batekin eguna borobilduaz. Albizturreko herrita-

rrek berriz, Emakumearen Eguna ospatzeko, Tolosako Amets jatetxean afaria izan zuten ostiralean. 25 lagun inguruk, otordu ederra egin ostean, Villabonako bakarrizketa lehiaketan garaile suertatu ziren Olatz Etxeberría eta Jone Gorostartzuk emanaldiarekin nahiko barre egin zuten albizturtarrek. A. ALTUNA - E. EZEIZA

Gazteek independentzia aldarrikatu dute

Tolosa Independentziaren inguruko jardunaldiak arrakasta izan zuen Sanblaspikon; eguna jai giroan pasatu zuten.

AINHOA ALTUNA

Eskualdeko gazte independentistek jardunaldi eta ekintza desberdinez beteriko egun pasa izan zuten atzo Tolosa eta Ibarako kaleetan zehar. 11:00etatik hasita, gaueko azken orduarte hausnarketa, eztabaida eta festarako parada izan zuten gazteek. Egunari hasiera emateko, Tolosako Triangu-

loan elkartu ziren 11:00etan. Hamaita eta erdiak aldera, Sanblaspiko elkartearen independentziaren inguruko eztabaida izan zuten. Norberak bere hausnarketak egiteko eta elkarren artean errealitate berri bat sortzeko parada ezin hobea izan zuten. Mahai-ingurua borobiltzeko, ikus-entzunezko bideoa ikusi zuten bertaratu ziren guztiak.

Eguerditik aurrera festa giroan Eztabaida amaitu ondoren, eguerdiko ordu biak jota, bazkaria prest zuten Tolosako Intxurre Herriko Tabernan. Hogeitabat gazte elkartu ziren bazkaltzeko garairako. Sabe-

la bete ondoren, arratsaldeko bostak pasatxo zirela, Plaza Berritik abiatuta, Ibarra aldera jo zuten gazteek triki-poteoan. Arratsaldeko 18:30ak inguruan, Herri Kirol alternatiboetan lehia polita sortu zen Tolosa eta Ibarako taldeen artean. 20:00etatik aurrera, Ibarako Gaztetxean bertan eginiko ogitar-tekoekin afaltzeko aukera izan zuten bertaraturatuko guztiak.

Independentziaren inguruko egun pasari amaiera emate aldera, gaueko 22:00etatik aurrera, DJ Independence-ren musika saioarekin festa giro ederra izan zuten gazteek Ibarako gaztetxean goizalderarte.



Ferialekuan, Udaberriko biga enkantea. A. ALTUNA

Udaberriko Biga enkantea egin dute Ferialekuan

Tolosa »Blonda, Pirenaika, Txaroles eta Limusin arrazako bigen VIII. enkantea ospatu zen atzo goizean Ferialekuan.

AINHOA ALTUNA

Ganaduzale ugari bildu zen atzo goizeko 11:00etatik aurrera Tolosako Ferialekura. Arrakasta handia izan zuten ganadua eramandakohamar baserriarrek. Zumarraga, Azpeitia, Lazkao, Aia eta Elorrio aldeko bigak ekarri zituzten eskualdera. Horietaz gain, Tolosaldeko baserriarrek ere zenbait buru ekarri zituzten Ferialekura.

Berrogeita sei biga

Ernai zeuden eta zortzi hilabetetik gora zituzten 46 buruk osatu zuten enkantea. Tolosako Lopetegi

baserrikoek limusin arrazako hamar biga saldu zituzten. Gehien goa irteera prezioan saldu bazen ere, igoerak ere izan zituzten; 1.350 eta 1.700 euroren truke saldu zituzten. Bidegoian aldetik, Arretxe baserriko bi txaroles ekarri zituzten, biak hala biak, 1.800 eurotan saldu zirenak. Urritzaga baserriko Maria Belen Artolak pirenaika arrazako sei biga saldu zituen 1.500 euroko irteerako prezioan.

Urteroko buru kopuru bertsua izan da aurtun ere Ferialekuan. Krisi ekonomikoak abeltzainak ere ukitu dituzten, bizi duten egoera txarra kontutan hartuta, Foru Aldundiak 150 eta 210 euro bitarteko laguntzak eskaini zituen ganadua erosleentzat.

13:30ak aldera eman zioten amaiera aurtengo Udaberriko Bigen Enkanteari.



Sanblaspiko elkartearen, gazteak eztabaidan. A. ALTUNA

Irabaziz berragertu da pilotara Abel Barriola

Leitza » Lesio baten ondorioz hamaika hilabetetan geldu egon ostean, beldurrak uxatu ditu pilotariak.

ERREDAKZIOA

Denboraldi luze baten ostean, Abel Barriola pilotalekuan, jokoan ikusteko aukera izan zen herenegun. Etxean, Leitzako frontoian egon zuen berragertu, eta erakutsi zuen epealdi luze eta aldapatsu honetan ez dela geldu egon, eta jada erreperatua dagoela.

Barriolak Retege Bizan zuten bikote. Hauek, garaipena lortu zuten Idoate-Eulate bikotearen aurka (22-15).

Partida hasieran Idoatek eta Eulatek abantaila hartu zuten 6-13 jartzearaino, baina ondoren Retege Bi-k eta Barriolak markagailua irailu zuten. Azken emaitza 22-15eko izan zen.

Abel Barriolak partidaren amaieran azaldutakoaren arabera, belaunean ez zuen arazorik igarri eta beldurra kendu zuela ere adierazi zuen.

Ia urtebete egon du geldu leitzarrik, Eibarko Astelenan pilotalekuan egindako belauneko lesio baten erruz jokatu gabe egon baita.

Berragertuaren ostean aurrera begira, eta hurrengo txapelketei so eginez jarri da leitzarra. Hemendik gutxiira hasiko da buruz buruko txapelketa, eta hor izango den edo ez galdetzean, honela zioen leitzarrik «esango banizu ez dudala pentsatzen gezurra esango nizuke. Ilusio izugarria dut buruz buruko txapelketa, txapelketa zoragarria delako. Argi daukat den dena eman behar dudala hor egoteko, ailegatzen banaiz ongi, eta ez banaiz iristen, kolpe bat. Baina beste bat izango da zakuan, eta aurrera!». Honenbestez, epe laburrean jakingo da eskualdekoa hor izango den edo ez.

Aurrera-Saiatz sailkatu da finalerdia jokatzeko

Pilota » Zazpi-Isturri irabazita pasa dira Berria Txapelketako hurrengo fasera; Aurrerakoak gaur 10:30ean dute partida.

ERREDAKZIOA

Tolosako Aurrera-Saiatz eta Amezketako Zazpi-Isturri taldeen arteko derbian lehendabizikoa izan da garaile. Berria Txapelketako final laurdenak jokatu zituzten herenegun gauean Alegiako pilotalekuan.

Hiru norgehiagoka jokatu zituzten, eta denak ere luzeak eta gogorrak izan ziren. Horren adierazle da 20:00etan hasi zen jaialdia gauerdian amaitu zela.

Lehendabizikoa kadeteak ari ziren lehian, Zazpi-Isturriko Nazabal-Artola bikotea, Aurrera-Saiatzeko Labaka eta Elustondoren aurka. Hemen Amezketako taldekoak izan ziren garaile 22-

20ko emaitzarekin. Hasiera batean, Artola atzelari lanak egiten ari zuten, baina gero aurrera pasa zen eta sakez min handia egin zuen.

Bigarrenean, Galurralde-Jaka, eta Urbietak-Zinkunegi bikoteen artekoan, bigarrenak, Tolosakoak, izan ziren garaile 22-14ko emaitzarekin. Partida erdialdera arte ez zen alde handirik egon markagailuan, baina aurrera egin ahala, Urbietak, hasierako urduritasunak alde batera utzi eta aurrea hartu zuten amezketarrei. Azkeneko partidak erabaki zuen ostiraleko emaitza. Hala, hemen 22-15 gailendu zitzaizkien Renobales eta Galarraga, Olaetxea eta Leundiri.

Gaur Aurreraren txanda

Leitzako taldekoak aterako dira gaur lehia, Markinaren aurka. Partidak Amazabal pilotalekuan jokatu dira 10:30etik aurrera. Gaur irabazten duenak, Aurrera-Saiatz izango du aurkari datorren asteko finalurrekoan.

Adostasunera iritsi dira Galarretako langileak eta arduradunak

ERREDAKZIOA

Erremonte profesionala kudeatzen duten Galarreta enpresako pilotari eta langileek, herenegun egindako greba deialdia bertan behera utzi dute. Negoziazioen ostean, ostiralean egindako deiarekin aurrera ez jarraitzea erabaki zuten arratsalde horretan bertan.

Hasiera batean, atzo ohiko jaialdiak ez egitea erabaki zuten. Baina ostiral iluntzean langileek luzatutako ohar batean adierazi zuten, «azkenik, negoziazio arratsalde neketsu baten ostean, greba ez egitea erabaki dugu. Izan ere, erremonte profesionalaren etorkizuna ziurtatuko duen akordio batetara iritsi gara enpresari berri baten eskutik». Oharren azaldutakoaren arabera apirilaren 1etik aurrera Maxi Samper arduratuko da Galarretaz.

Txirrindularitza » Atzo arratsaldean jokaturako proban bizkaitarra izan zen garaile; Lehendakari Txapelketako lider da.

ERREDAKZIOA

Ibai Salas txirrindulariarentzat egun borobila izan zen atzo. XXII. Insalus Saria froga jokatu zen atzo, eta bizkaitarrak eman zituen lasterketako sari nagusiak.

Afizionatu mailako eskualdeko txirrindulari frogarik ezagunena den honetan 21 taldetako 115 txirrindulari lehiatu ziren atzo eskualdeko sariketan. 15:30ean hasi zen lasterketa eta bi ordu eta erdi inguru iraun zuen.

Maila handiko lasterketa

Insalus froga Lehendakari Txapelketako bigarren proba zen. Txapelketa 14 jardunaldik osatzen dute, eta atzokoa bigarrena izan zen Ereñokoaren (Bizkaia) atzetik. Lasterketa irailaren 19an amaituko da Bergaran. Orain, atzoko emaitzen ostean, Ibai Salas dalidera.

107 kilometro zeharkatu behar izan zituzten parte-hartzaileek atzokoan. Frogaren amaieran hainbat sari banatu ziren. Hasteko lehen aipatu bezala, helmugara iritsi zen lehen txirrindularia Ibai Salas izan zen. Honen atzetik iritsi ziren, hurrenez hurren, Ruben Fernandez Coplad UNI2 taldekoa eta Fernando Grijalbo Naturgas Energikoa.

Mendiko saria ere Salasek eraman zuen. Izan ere, lasterketan zehar lau portu zeuden. Lehendabi-

Ibai Salas txirrindulariarentzat izan dira Insalus Sariako garaipen guztiak

» INSALUS SARIA

Sailkapena

- **1.** Ibai Salas (Seguros Bilbao).
- **2.** Ruben Fernandez (Koplad-UNI2).
- **3.** Fernando Grisalba (Naturgas Energi).

Mendateak

- **Altzo (36. kilometroa).** Beñat Txoperena (Caja Rural).
- **Altzo (61. kilometroa).** Omar Fraile (Seguros Bilbao).
- **Leaburu (81. kilometroa).** Ibai Salas (Seguros Bilbao).
- **Altzo (114. kilometroa).** Ibai Salas (Seguros Bilbao).
- **Mendiko irabazlea.** Ibai Salas (Seguros Bilbao).

Talde onenaren saria

- **Seguros Bilbao.**

Lehendakari Txapelketako liderra

- **Ibai Salas.**

zikoa Altzon, 36. kilometroan; bigarrena ere Altzon, 61. kilometroan; hirugarrena Leaburuan, 81.lean eta azkena berriro ere Altzon, 96. kilometroan. Horietatik, azken bietan, Ibai Salas izan zen igarotzen lehendabizikoa, eta ondorioz, irabazle. Azkenik, talde onenaren saria eman zuten, eta hau Salasarentzat izan zen, hau da Seguros Bilbaorentzat.



Lasterketaren azken zati oso ona eginaz, Ibai Salas izan zen helmugara iritsi zen lehendabiziko txirrindularia. E. EZEIZA



Ramon, ezkerrean, Sabino eta Iñaki xakean jolasten ari direla. I. GARCIA

Hainbat urte daramatzate Ramon, Sabino eta Iñaki Etxeberria anaia tolosarrek xakeari lotuta. Hainbat txapelketa jokatu eta irabazi ere egin dituzte. Bereziki gogoan dute Miranda de Ebron irabazitakoa.

Xake taularen inguruan

IMANOL GARCIA

Afizioa bera dute Ramon (1973), Sabino (1976) eta Iñaki (1983) Etxeberria anaia tolosarrek xakea. Ramonek jokoaren alor guztiak ukitzen ditu: jokalaria, epaile, antolatzaile, begirale... eta Tolosako Xake Elkartearen lehendakaria da egun. Sabino eta Iñaki, jokalariek izateaz gain, begirale eta antolatzaile bezala ere aritu dira. Esaterako, Laskorain Ikastolan hiruak izan dira xakeko begiraleak. Batak besteari eman zion lekukoa ardura horretan.

Ogibidez, Ramon eta Sabino informatikariak dira eta Iñaki harakina. Lau anai-arreba dira, denetan zaharrena arreba da, baina hark ez du xakearekin loturarik. Ramonek hasi zuen familian xake-rako zaletasuna. «Zortzi edo bederatzirte nituela, Tolosako Udalak antolatzen zituen ikastaro multzo batean, amak nire izena eman zuen hainbat ikastaroretan, tartean xakean, eta horrela hasi nintzen», azaltzen du. Eta nola joko honek aurkaria eskatzen duen, etxean bilatu zuen. «Norbaiten kontra irabazi behar zuenez, niri tokatu zitzaidan», azaltzen du Sabinok, eta Iñakiri begiratzat gaineratzen du: «Eta geroago, nik ere norbaiti irabazi behar nioenez, honen kontra hasi nintzen».

Xakean jokatzeari etxetik kanpo eman diote jarraipena hiruek. Halere, afizioa baztertu izan dute denbora tarte batzuetan, ikaske-

tak, lana edo beste arrazoiren bat tarteko. «Elkartetik pasatu direnak arrazoi batengatik edo beste-tik beti denbora tarte batean utzi izan dute», dio Iñakik. Egun hiruek, gehiago edo gutxiago, lotura dute elkartearekin.

Horrez gain, inguruan antolatzen diren xake txapelketetan parte hartzen jarraitzen dute. «Gustatzen zaigu xakean jolastea, eta deitutuz gero izena ematen dugu, baina joera izaten ari da gero eta gutxiago jokatzeari», dio Sabinok. «Gero agian hemendik urte batzuetara irrika sentitzen dugu eta berriro ere gehiago jokatzeko hasi gara».

Tolosan, une honetan, xakean jolasten urte gehien daramaten jo-

kalarien artean daude Etxeberria-tarrak. Beteranoetakoak dira, beraz. Hainbat txapelketa irabazi dituzte, tartean Gipuzkoakoak, maila ezberdinetan, eta taldeka nahiz bakarka.

Gero herriko festetan antolatzen diren hainbat txapelketetan ere askotan joan dira eta irabazi ere bai. Baina bereziki gogoratzen duten txapelketa Miranda de Ebrokoa (Espainia) da, 2000. urtean jokatutakoa. «Txapelketaren 50. urteurrena zen», dio Iñakik. «Gu hiruek eta elkarteke beste bat, Jabi Baroja, joan ginen», azaltzen du Ramonek. «Inork ez zuen gure alde apusturik egiten. Txapelketa berezia antolatu zuten. Burgoseko selekzioa joan zen bertara. Gu

egun pasa joan ginen eta azkenean irabazi egin genuen».

Jendea eta lekuak ezagutzeko

Xakearen munduan familia berekoak topatzea ez da arraroa izaten. «Aurkaria behar duzu eta etxekoa engainatzen duzu jokatzeko», dio Iñakik. Inguruan badaude familia berekoak: Barojatarrak, Mujikatarrak...

Xaketik zer erakartzen dien gal-detuta, «lagunak egiteko modu bat zen. Zure adineko jendea ezagutzen zenuen», azaltzen du Ramonek. «Toki batetik bestera joateko balio izan du. Nik Euskal Herriko herri asko ezagutu ditut xakearen bitartez. Herrietan izaten diren txapelketak jokatzeri joaten ginen». Sabinok gaineratzen duenez, «beste hainbat lekutara ere joan gara: Burgos, Kantabria... Azkenean, zortzitik hamabost urtetara, festa non, gun han; hara joaten zinen jolastera eta egun pasa egiten zenuen». «Bazkaria ematen zizuten eta afaria bazen gero, festetan gelditzen zinen», dio Iñakik.

Orain urte batzuk xakea kirola den edo ez eztabaida piztu zen. «Nik garrantzirik ez nion eman horri», dio Iñakik. «Azkenean diru kontua da», esaten du Sabinok. «Kirola izan edo ez izan berdin jarraituko du jokatzeko jendeak», gaineratzen du Ramonek. «Eztabaidaren atzean zegoen kontua, kirola bezala izendatzeak ekartzen duena da: diru laguntzak, federa-

zioa izatea... Eta hori dena kentzen bazen, zer eragin izango zuen xakean. Hainbeste urtetan kirola bezala hartu da eta egun duen azpiegiturarekin, kirola izatera ez izatea zer eragin izango zuen zengakoa». Eskola Kirola egitasmoaren baitan dago xakea. «Haurrak xakean has-teko aukera ona da», dio Ramonek. «Egitasmo horretan ez balego, eta diru laguntzak kenduz gero, zer etorkizun izango zuen beldur zen jendea». Kirola zer den edo zer ez den eztabaida askorako ematen duela diote. «Portugalen damatan jokatzea kirola bezala hartzen da eta hemen ez», azaltzen dute.

Elo sailkapena


Tenisean bezala, xakelarien artean sailkapen bat dago. Elo deitzen zaion sailkapen horrek, xakelari bakoitzaren maila erakusten du. Hiru Elo mota daude: Euskadi mailakoa, Estatu mailakoa eta nazioarte mailakoa. Ramon eta Sabino hiru sailkapenetan daude eta Iñaki Euskadikoan dago.

Hemengo txapelketa guztiak Euskadiko sailkapenerako puntuak ematen dituzte. Zenbat eta txapelketa gehiago jokatu aukera gehiago izaten dira Eloa handitze-ko. Aurkariak duen maila ere garrantzitsua da sailkapenean puntu gehiago lortzeko.

Xakean erabiltzen den beste sailkapena mota bat izendapenak dira. Horietan altuena Maisu Handiarena da, gero Nazioarteko Maisua, Nazioarteko Federazioaren maisua, eta azkenik, orain gutxi atera duten beste maila bat: maisu izateko hautagaia. Normalean Maisu Handiek 2.500 Elo puntu dituzte eta beste izendapenek bakoitza ehun puntu gutxiago izaten dute gutxi gorabehera. Puntako mailan aritzen direnak 2.700 eta 2.800 Elo puntu inguru izaten dituzte. Ramon eta Sabino 2.000 Elo puntu inguru dituzte eta Iñakik zertxobait gutxiago du.

Xakean aritzeko azkarra izan behar zarenaren ustea «mito» bat dela diote. «Nik uste dut mito hori batek baino gehiago haurtsi dugula», dio Iñakik. «Edozeinek jolastu dezake xakean», dio Sabinok. «Nahitua da zer maila arte iritsi nahi duzun, orduan trebetasun batzuk izan behar dituzu. Baina hori futbolean bezala da. Denok dakigu iristen dira Ronaldo izatera? Adibidez, hamabost urtetik aurrera gehiago sakondu nahi baduzu, el-karte batean sartzen zara, gehiago saiatzen zara, liburuak irakurtzen dituzu...».

Jendearen ustea da xakea «spergarria dela», dio Iñakik. «Ikuspuntu hori dago. Orduak eta orduak ematen dituzula taula baten inguruan. Baina partida azkarrak ere badaude, bost minututan bukatu behar dituzunak. Jendeak galdetzen digu: 'Ematen dizudete denbora pentsatzeko?' Eta bai, ematen du, partidak bukatu egiten dira. Eta hori da xakearen inguruan ezagutzen ez den alderdietako bat».



Partida hasteko, erregearen peoiak bi lauki aurrera

I. GARCIA

Partida zein fitxekin hastea gustatzen zaien galdetuta, hiruek zuriak aukeratzen dituzte. «Iniziatiba eramatea garrantzitsua da», zehazten dute. Lehengo mugimendua egiteko garaian ere bat egiten dute. Xakearen hizkuntzan E4 bezala ezagutzen dena, hau da, erregearen aurreko peoiak bi lauki aurreratzea. Hasiera ohikoena da. Sabinok zehazten duenez, «partida irekia izango dela adierazten du horrek». Eta Iñakik gaineratzen du: «Beltzak dituenak ematen duen erantzunaren arabera partidamodu batera edo bestera joango da».

Historian izan den xakelari onenari buruz galdetuz gero, Ramonek Kasparoven alde egiten du, «izan duen eraginagatik. Baina ikusi behar dagaraia ere. Ez da berdina orain egiten den joko edo orain dela 200 urte egiten zena». Gustukoengaur egungoen artean Kramnik errusiarra aukeratzen du. Historian zehar, Capablanca kubatarra ere gustuko du. «20. mende hasierakoa da jokalar hori. Munduko txapel duna izan zen gara horretan eta bere jokoak gustatzen zait», dio.

Bere aldetik, Sabinok Lasker alemaniara aukeratzen du xakelari onenaren titulua emateko. «Bera egon zen denbora gehien munduko txapeldun bezala. Hori bai, kontuan hartu behar da tartean I. Mundu Gerratea izan zela ere». Gustukoenean artean Kramnik aukeratzen du: «Leko-ren aurka txapelketa batean nola jokatu zuen gustatu zitzaidan eta izaera aldetik ere jatorra da».

Iñakik nazioarteko xakea ez duelaasko jarraitzen dio. «Izen batzuk badakizkit, baina beraien partidak eta ez ditut jarraitzen. Informazioa badaukat xakearen inguruan, baina ez daukat hainbesteko afizioa, nolabait esateko». Xakelari onenetan bat aukeratu behar badu, Kasparov-en alde egiten du. «Nire adinarengatik bere izena entzun dut gehiena. Bera izan da ordenagailuaren aurka jokatu zuen lehenengoa».



Iñaki, Sabino eta Ramon Etxeberria anaiak Tolosako Xake Elkartearen. I. GARCIA

Gustuko partidak

Gustuko partidari buruz galdetuz gero, Kramnik-ek makina baten kontra jokaturakoa gogoratzen du Ramonek: «Partida horri buruz Kramnik-ek esaten zuenez, puntu batera iritsi zenean bazekiela irabazi egingo zuela. Nik begiratzen nuen partida puntu horretan eta ez nuen ikusten non arrazoitzen zuten hori. Handik bost jokaldira ikusi nuen zer esan nahi zuten eta

izan, bestela galdu egingo zenuke». Kramnik-en partidak ere gustuko ditu: «Oso estrategikoak dira».

Jendea atentzioa ematen dioten partidak bi motatakoak direla diote. Alde batetik, sakrifizioarena, hau da, zure piezak galtzea. «Pieza bakoitzak bere balioa du eta beraz dama bat galtzen baduzu alfiltengatik, balioa galtzen ari zara, baina mugimendu hori agian ondo

du gogoan: «Bota nuen bota behar zen guztia. Bai dorreak, dama, alfilla, zaldia, eta azkenean ondo ateratzen zira eta irabazi egin nuen».

Sabinok dio partida gustukoena aukeratzeko, asko egon daitezkeela. «Partida bateko jokaldi jakin bat ere izan daiteke». Bat aukeratzeko, 2000. urtean Miranda de Ebron jokaturakoa gogoratzen du: «Taldek lehenengo taula nintzen eta orduan Gaztela

beltzak nituen eta besteari berdintzea nahiko zitzaion Txapelketa irabazteko», dio. Nahiko berdintza joan zen partida eta memento bat iritsi zen erabakia hartu zuela: «Edo galdu edo irabazi egiten dut. Ni partidaren bila joan nintzen eta bestea atzera bota zen, defentsa egitera. Azkenean partida eta Txapelketa irabazi nituen. Ilusio handia egin zidan».

Xakea jokatu duten leku bereziren bat galdetuz, Ramonek gogoratzen du behin hegazkin batean ondoko eserlekuan zegoen batekin, haren agenda erabiliz partida bat jokatu zutela. Iñakik, esperientzia berezi bezala, gogoan du nola 12 urterekin Santanderre-rajotan zen, Euskadi eta Kantabriaren arteko selekzioen norgehiagokak batera.

Sabinok gogoan du Madrilen, Retiro parkean xakean jolastu ohi duten adinduekin gustura aritu zela jokoan. «Asko gustatzen zait inoiz egon ez naizen leku batean azaldu eta baten bat xakean jolastean ikusten badut, beraiekin haseta jokatzen. Bertakoen aparte, Retiroan elkartu ginen ere kubatar bat, kanariar bat, eta ni. Bertako adineko jokalariek pixka bat erretxinduta zeuden, kanpotik joandakoek irabazi egiten zirelako».

«Ez da berdina orain dela 200 urte egiten zen xakea eta gaur egun egiten dena»

RAMON ETXEBERRIA

nola jipoia eman zion makinari». Lehen makina eta gizakiaren arteko «partida asko antolatzen ziren. Gaur egun makinak jipoia emango zion edozeini», azaltzen du Ramonek.

«Partida zahar askok bere xarma dute», dio Sabinok. «Bada XIX. mendean jokatu zuten Hilezkorra izena duen partida bat. Irabazleak pieza asko bota zituen eta azkenean mate ematen zuten. Orduan oso agresiboak izaten ziren partidak. Gaur egun ezin da hain agresiboa

«Partida zahar askok bere xarma dute. Bada bat XIX. mendean 'Hilezkorra' izena duena»

SABINO ETXEBERRIA

etortzen zaizu gero partida irabazteko», azaltzen du Ramonek. Beste partida mota pixkanaka-pixkanaka, ia ezer egin gabe, irabazten joaten zaren horietakoa da. «Aurkariak ez daki zer gertatzen ari den eta bitartean irabazten joaten zara pixkanaka», azaltzen du Ramonek.

Beraiek jokaturakoen partiden artean, zein duten gustukoena galdetuta, Ramonek orain urte batzuk, Gipuzkoako Txapelketan, piezak sakrifikatuz irabazitako bat

«Ni partidaren bila joan nintzen eta bestea atzera bota zen. Azkenean Txapelketa irabazi nuen»

IÑAKI ETXEBERRIA

eta Leongo txapeldunaren aurka tokatu zitzaidan. Alde handia zegoen. Nik partidaren une batean, peoi bat gutxiago izan arren, ikusi nuen irabazteko aukerak nituela eta horrela gertatu zen. Satisfazio handia izan zen. Partida horren arabera erabakitzen zen txapelduna zein izango den».

Txapelaren bila

Bere aldetik, Iñakik Gipuzkoako kadete mailan txapeldun izatera eramane zuela du gogoan. «Nik

Herrian xakea bultzatzeko asmoz

I. GARCIA

Tolosako Xake Elkarte Berdura plazan dago. Guztira 30 bazkide inguru dira. Igandero, ez badago txapelketaren bat tartean, 11:00etatik 13:00etara irekita egoten da nahi duenarentzat, bertara joan eta xakean aritzeko. «Normalean haurrak etortzen dira, baina guztientzat dago irekita», dio Ramonek. Ostiral arratsaldetan ere elkartzen dira, teknifikazio saioak bezala ezagutzen direnatan, dagoeneko maila jakin bat dutenei eta federatuta daudenei zuzenduta.

Txapelketei dagokionez, hainbat izaten dira urtean zehar. Alde batetik Federazioak zehazten dituen Gipuzkoako Txapelketak, hainbat mailatan. Horrez gain, gaztetxoei zuzenduta, taldeka parte hartzen den Kutxa Txapelketa ere izaten da. Maiatza, ekaina eta uztailan zehar hainbat herritan txapelketak antolatzen dituzte.

Tolosan herriko zenbait elkar-txede bere txapelketa antolatzen dute. Urdiña Txikirena, Errege Egunetakoa eta Aitz-Orratzek ere antolatuta ohi zuten. Iaz berreskura-

tu zuten elkartearen 75. urteurrena zela eta. Xake Elkarteak bere txapelketa maiatzean antolatzen du.

Gipuzkoakoan mailaz go berri dira

Orain gutxi bukatuta da Gipuzkoako taldekako Txapelketa. Tolosa-Ibarra B taldearen zuzendakariak, Iñaki Etxeberria, Andres Bustamante, Iñigo Muxika, Jokin Mendia, Joxe Mujika eta Aimar Intxaurrendok. Elkarteko beste taldean, Tolosa-Ibarra B-n, hauek jokatu dute: Ramon Etxeberria, Carina Gonzalez, Danel Intxaurrendok, Unai Mendizabal, Mikel Muguruza, Mikel Aretxaga, Iñigo Puerta, Jone Mujika eta Javier Herrero. Talde hori multzoko laugarrena izan zen.

tearen taldea berregituratu zuten eta denekin behetik haseta komepignaria zela ikusi zuten.

Talde Maila Nagusian zuten, «baina salto handiegia zen maila horretan haseta», zehazten du Ramonek. «Maila eskolarretik federatuen mailara igotzea saltoa suposatzen du eta gero hortik Maila Nagusira igotzea oraindik gehiago». Beraz, bi talde jarri zituzten martxan. Horietako bat Bigarren mailara igotzeko asmoarekin, bertan jubenilak sartuz, eta bestea eskarmentua hartzen joateko, Kutxa



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_publicidad@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Elkartasuna

■ **Tolosa.** Gaur izango da Amaroko Merkatu Txikia bisitatzeko azken eguna. 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik Kultur Etxean. Bitzen duten dirua Nikaraguako emakumeen hezkuntza proiektu bati emango diote. Kutxako 2101 008115 0124410788 kontu kontuan ere sar daiteke dirua.

Txotxongiloak

■ **Tolosa.** *Erreka Mari Euskal Herriko azken lamia txotxongilo antzez-lana* Topic-en gaur 12:30ean.

Mendi irteera

■ **Tolosa.** Oargi Mendi Taldeak orientazio ikastaroa antolatu du hilaren 22, 24, 26 eta 27rako. Oargin bertan izango da 19:15etik 21:00etara hilaren 22, 24 eta 26an, 27an, aldiz, larunbata, praktikak egingo dituzte mendian. Ikastaro honetan mapak irakutzen eta iparrorratza, inclinometroa eta abar erabiltzen ikasiko dute Carlos Garcieren eskutik eta 30 euro inguru oraindu beharko dira. Izena ematerakoan 20 euro aurreratu behar dira Euskadiko Kutxaren 3035 002811 0281141038 kontu korrantean edo elkartean bertan. 688-698 642 telefono zenbakian edo info@oargi.org helbide elektronikoan eman daiteke izena.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Lekunberri.** Azpiroz M. A. Aralar kalea, 43. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Zahar berri.
09:00. Nonochan.
09:30. Tolosaldean Gaur.
10:00. Klik.
10:30. On ein!
11:00. Planik bai.
11:30. Tolosaldean Gaur.
12:00. Eskuokin.
12:30. Barrebusa.
13:00. (Jarraipena).
13:30. 16 mm.
14:00. Kafe t' erdi.
14:30. Gipuzkoa Kultura.
15:00. Kirolerok.
15:30. Wazemank.
16:15. Klipak.

(* 12:30etik 16:15erako blokeak lau orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



Herri Kirol Jaialdi hunkigarria

LEITZA ■ Leitzarrek festa giro polita izan zuten atzokoan plazan. Herri Kirol Jaialdia zuten, baina ez edonolako, elkartasuneko jaia izan baitzen. Orain bi aste erretako Musun baserria berreraiki ahal izateko dirua bilzteko festa izan zen, eta herri guztiak hartu zuen parte. Aizkolariak, harri-

jasotzaileak, lasterkariak eta bertsolariak izan ziren, besteak beste. Sarre-ra doakoa izan zen, baina bertaratuak borondatea uzteko aukera izan zuten. Musun baserrikoak hunkituta zeuden atzokoan eta esker oneko hitzak besterik ez zituzten. E. EZBIZA

A Agurrak



Zorionak!

Urte askoan ama etxeko guztien partetik!
Muxu bat!

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

June 2010 Examination

LACUNZA

A MEMBER OF THE INTERNATIONAL HOUSE WORLD ORGANIZATION

First - Advanced - Proficiency

Izen-ematea zabalik martxoaren 22ra arte

Azterketak Ordizia, Tolosa, Zarautz, Donostia eta Irunen egingo dira
(azterketak prestatzeko ikastaro bereziak, emaitza bikainak)

Donostia - San Sebastián					Irun	
Centro / Erdialdea	Amara	Gros	Antiguo	Centro / Erd.		
Urbietia 16	Moraza 5	San Bartolomé 10	Eustasio Amilibia 14	Secundino Esnaola 39	Bertsolari Xalbador 8	J. Ramón Aguirreche 8

902 012 912

www.lacunza.es | academia@lacunza.es

TOLOSAKO UDALAK LAGUNDURIKO GEHIGARRIA

GIPUZKOA ENCOUNTER IV

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



ARO BERRIAREN AZTARNAK

TOLOSA Usabal kiroldegian Gipuzkoa Encounterren laugarren edizioa burutuko da hilaren 19an, 20an eta 21ean. 600 lagun elkartuko dira party honetan. Gerturutzen den orok edukiko du zeresana eta zeregina.



TOLOSAKO UDALA

TOLOSA 2015

euskaltel

spri



kutxa



Gipuzkoa Encounter IV Tolosan burutuko da hilaren 19an, 20an eta 21ean. Europa iparraldetik datorren haizeak gogor astinduko ditu Usabal kiroldegiko ormak. Hala eta guztiz ere, antolatzaileek aterik ixteko asmorik ez dute.

MUGARIK GABEKO PARTY-A

Gipuzkoa Encounter mugari gabeko jaialdi erraldoi bat da. Gorputza Usabal kiroldegian egongo den arren, arima mundu guztira zabalduko da sareak hiru egunetan zehar. Gipuzkoa Encounter party informazioa hori.

da. Gipuzkoa Encounter antolatzen duen lantalde berak sortua. Party bat maitasun istorio zahar bat da fisioan, eta sokakuntza harri-zeko moduko lekua izan ohi du ospatzen den egun horietan. Orde-nagailuak soinaren dituzte eta chun-ka zale topaketa handi batean elkartzen dira, gehienbat gazteak izan ohi dira. Behin bertan, lekua egun ondoren, tresna maitasun hiez egotzeko lan antziz garatzen eta aurkezten dituzte. Honek harremanak sendotzen du, zailtasunak gaitzesten baita eta gaitzerak erantzuna. Elkarrizketak egaztuta, eta ezagutzak sare sozia-lean hainbidetako hurremanak.

tzakia sareko jokoa dira. Bertan, zenbait ikidex osatuko taldeak elkarren artean norgehiagoka bizi-azintzen dira eta zailen urtoetan ba-rikar, arrakasta handia lortu dute. Gipuzkoa Encounterrek bi party mota hauek bitzen ditu.

Nolako izango da Usabalgoa? Partaidentzat, io egiteko lekua ekuilok duten arren, eterrik gabeko hiru egun eta biguaz zira aragari izango dira. Hurbiltzen diren en-tertzar berri, garbi berri batzuta. Lehen multzokoek lau gune edukiko dituzte eskura Gipuzkoa Encounterren: Scene, software li-bera, amateur jokoa eta har dware-rikabaketa.

Bisitarrak, jokoguneari eta hi-tzaldi aretoan parte hartzeak eta edukiko dute. Horretaz gain, Usabalen sortzen diren lan ugari ilusteko aukera edukiko dute are-ko nagusian; hiru egunetan zehar, proiektzio partaketa bertan egindako lanak erabiltzeko dituzte: bideo-ak, animazioak, musika...
Jokoguneari bitarrek azken jo-koak jokatuko aukera edukiko dute, hainbat lehiaketetan parte hartzeko parada izango dute. Hitzaldi aretoan berri, infor-mazioa maila garurkotsuana du-ten gaiak aztertu dira, aditu eta ez hain aditu. Bertan, jaiate parte hartzeko as- mor esko busek gisa jaiate nahi du- ororentzat atek zahalik egongo dira.

Jaiaren hasiera, hilaren 19an Tolosako Usabal kiroldegian ospa- tuko den Gipuzkoa Encounter IV martxoaren 19an, ostiralean, jarri- ko dute martxoan. Inaugurazio ek- taldia 12:00etan hasiko da eta Josina Etxeberria esatarik az- zenduko du. Bertan, Tolosako gimnasia erretimikoko taldearen saioa ikusteko aukera egongo da lehenik, eta ondoren, babarrun dastatzea burutuko da. Tolosako Babarrun Elkartearen eskutik.
Horik aurrera, etnik eta mugari- rik gabeko party-a Ongietorri Gi- puzkoa Encounterren



Tolosako hainbat gizarte eragilek Gipuzkoa Encounterrekin bat egin dute

Gizarte eragileak: GKO galeriak, Gazte lokalak, Topaguneak, eta Berdintasun sailak hainbat ekimen burutuko dituzte.

Usabal kiroldegia hilaren 18an zabalduko dira atek. Gipuzkoa Encounter IVeko partaketa gehi- nak orduan iritsiko dira Tolosara, inoagaruzio ofiziala baino aurreratzen lehena, bezar. Antolatzaileen esanetan, atek egun bat lehena gozabaltzaren arazoak prestatu- n aurkitzen da: «Lo egiteko kanpin-dendak jartzen dituzte alda basteik, besteak, garrantzi- tsuena, ordengailuak prest jarri behar izaten dira, lehen eguneko lehen egunetik guzuzten heste- ko. Hiru egunetarako hamaika ekitaldi antolatu ditu Tolosako Udalak Usabalen. Euskelamagel- kartaren laguntza eta koordinat- zioarekin, Tolosako hainbat giza- te eragile ere jaiarekin bat egitea erabaki dute.



Topalekuan Encounterren irauten duen bitartean Usabalen egongo diren jokoa jarriko dituzte. © IZENA

GKO galeria
GKO-ko gazteek proposamen ber- rari hainbat zuten. Gure interak- tioa kokatuko gaitzeko behar zaie, bost gune desberdin hauetan parte hartu dezaten. Herriarekin hata- ra gaitzeko lokalak ere Usa- balen konexioetan jarriko dituzte.

Gazte lokalak
GKO-galeriak kokatu proposa- ma- na kokatuko gaitzeko behar zaie, bost gune desberdin hauetan parte hartu dezaten. Herriarekin hata- ra gaitzeko lokalak ere Usa- balen konexioetan jarriko dituzte.

Lanbide Heziketa
Laz izanako esperientziarekin ja- irautz, laugarren Gipuzkoa En- counterren muntain parte har- tzeo aukera izango dute Lanbide Heziketako zortzi ikasle.

Topagunea
Usabal kiroldegian egongo diren jolas guneko jokoa, Topaguneari ere egongo dira Gipuzkoa En- counter IV irauten duen egunetan.

Berdintasuna
Martxoaren 19an, Joseb Irujo Berdintasun tekiariaren eskutik, ekimen garrantzitsu bat jarriko dute martxoan: «Parte hartzen du- ten neskinen maila bat plantatzen dugu.»



PARTAIDEAK
600
● **Gitonetzkoak:** % 87,95.
● **Emakumezkoak:** % 12,05.
● **Bizkaitarrak:** % 42 (176 lagun).
● **Gipuzkoarrak:** % 29 (122 ?).
● **Nafarrak:** % 10 (44 ?).
● **Arabarrak:** % 10 (42 ?).
● **Besteak:** 16 lagun.
● **Gutuzieneko adina:** 15 urte.



AZPIEGITURAK
● **Party gunea:** 1.200 m².
● **Loggia:** Kiroldegi barnean kanpin-dendak jartzeko aukera.
● **Pantailak:** 6x4,5m-ko nagusia eta 3,5x2,65m-ko bi laguntzaile.
● **Ordengailuak:** 450 bano gehiago.
● **Abiadura:** 1.000 mega (GB 1).
● **Elkartruketak:** 20.000 mega.
● **Switch konexioak:** 1.000 megako abiadura.
● **Lau zerbitzari.**
● **Laguntza teknikoak:** 8 lagun.



honetan %12a bakarrik dira emakumeak? Partaidetza hori sustatzea da gure helburua. Horretarako, berriekin hitz egin behar da. Encounterren parte hartzearen izan dituzten kezak, zailtasunak eta abar jakiteko.
Bital baxak izanzeno usuan, Aurretik aurre erakusketaren inguruan zerbait egitea bururatu zitzaion berdintasun tekiariari: «Erakusketaren indiak erabiltzeko ditugu emakumea edo generoaren eta sexuaren inguruko hausnarketa bat sustatzeko. Arretaz ere hitz egongo dugu, erakusketaren bost-entzuko hainbat material biltzeko, ordengailuak erabiltzeko lan digutik abiltzek. Berezin ino- regarria izango dela uste dugu, orain arte horrela egin ditugun bi- sio gaitzak oso ondo funtzionatu baitute.»
Erakusketaren inguruan hausnarketa sustatu «Ikasleak atre- tzen jongo dira Irujoen ustez, beti ere, emakumeen partaidetza handitzeko helburuarekin.
Araio horietan iritsiko bideko- ko bat ezartzen jakitea da Irujo- en ustez: «Neska gazteekin gaitza bat gertatzen da sokotan, bertan egongo diren neska gehienak duela kanpotik begiratu. Baina berriekin hitz egiten hasten baldin bazara, segituan zabalduen dira. Nola gure dituzte esakoa, baina ino- rke deklabe horietan hitz egite- ten: Tolosara etorriko diren nes- kak, interes handia dutelako eto- rriko dira. Zuzenki, euren zailta- sunak buruz azko jakingo dute eta horren inguruan gaitzetea eta hausnarketa interesgarria izango da. Zer modotzen zaitu gaitzen Encounterrekin? Zein aldatzea eman beharko litzateke meskin parte hartze sustatzeaz? Zergatik ez dira lagunak etorri?»



E. EZEIZA

«Teknologien munduan gero eta emakume gehiago ari dira sartzen»

NEREA ALEJANDRE ›
Bilbo

ESTI EZEIZA

2008ko Gipuzkoa Encounterren %8 ziren emakumezkoak. Horietako batzen Alejandre bilbotarra. **Horrelako jaialdi batean parte hartzen duzun lehen aldia al da?** Ez, iaz ere etorri nintzen Tolosakora, eta honez gain, hiru aldiz joan naiz Bilbon ospatzen den Euskal Encountererrera.

Zergatik gustatzen zaizkizu horrelako topaketak?

Alde batetik, giroagatik. Urtean zehar internet bidez harremana dudan jendearekin topatzen naiz. Bestalde, etxeko ordenagailuetatik jaistea zailak diren gauzak deskargatzeko aprobetxatzen dut. Beste hainbat tokitan aurkitzen zailak diren gauzak topa ditzazkezu, esaterako, Asiako bildumak.

Aurtengo topaketaren ezaugarrietako bat abiadura handia da.

Egia esan, gutxi garenez, jaisteko garaian ez daukagu elkarbanatzeko gehiegi. Horregatik, hegan doa. **Jendea oro har zertara etortzen da horrelako topaketetara?** Sarean jolastera edo gauzak jaisteara. Baita diseinuko lehiaketetan parte hartzera ere. Ni esaterako, denetik pixka bat egiten ari naiz.

Gaur, esaterako, noiz hasi zara nabigatzen?

Lo ez dut ongi egin eta nahiko goiz jaiki naiz. Bederatzietarako ordenagailuaren aurrean nengoan.

Gauz ibili al zara?

Bai, 04:30ak aldera joan ginen lotarra. Horrelako jaialdietara etortzen zarenean denbora ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatzen zara, eta lo gutxi egiten duzu.

Parte-hartzaileetatik %92 gizonzkoak dira, zergatik?

Hemen gauden gehienok diseinuaren sektorean egiten dugu lan edo harremana dugu. Oraindik sail horretan gehienak gizonzkoak dira. Hala ere, gero eta emakume gehiago ari dira sartzen teknologien munduan.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak aurreko Gipuzkoa Encounterretan parte hartzaileei elkarizketak eta inkestak egin dizkie. Hona hemen horien bilduma.

Orain arteko edizioak barne-barnetik



» **INKESTA**

2007. urteko Gipuzkoa Encounterra. Zerk bildu zaitu lehen edizio honetara?



«Atetik sartzean hemen denak lagunak gara»

Sebas Kintanila
LAZKAO

«Informatikaren inguruko bilera handi honek erakarri nau. Belaunaldi desberdinak elkartzen dituen mundu berri hau gauza nagaiaren aurrean nengoan bezain handia».

«Gaur etorri naiz eta asko gustatu zait»

Mercedes Menendez
BUENOS AIRES

«Ordenagailuak gustatzen zaizkigu jendearen topaketa da. Nire helburua jokoetan ibiltzea eta film edo telesail interesgarriak lortzea da. Jaia atzo hasi baldin bazen ere, nire lagunarekin gaur etorri naiz. Askok gustatu zait ikusitakoak».



«Jokoetan eta gauzak jaisten ibiltzen gara»

Jose Antonio Campo
IRUN

«Lagunekin eta ezegzagunekin elkartzeko aitzakia bikaina iruditzen zait, txango baten modukoa da. Euskal Encountererrera ere joaten gara eta oso gustura etorri gara hona ere».

«Web orriari publizitatea egitera etorri naiz»

Eneko Muñoz
GASTEIZ

«Batez ere, nire web orriari publizitate pixka bat egitera etorri naiz. Bi enprekin akordioa lotu dugu eta aukera ona dela iruditzen zait. Horrez gain, jendea ezagutzera eta harremanak egitera ere etorri gara Tolosara».



«Hiru ordu besterik ez ditut lo egin gaur»

Guillermo Gusi
BRASIL

«Gasteizen bizi naiz eta gustu berdineko jendearekin elkarrekin teaz gain, elkar ezagutzeko trukatzeko aukera polita da. Artxibo eta jokoan inguruko jakintza trukatzeko dut».

«Lehiaketetan parte hartzera etorri naiz»

Unai Muñoz
VILLABONA

«Jokoak, filmak eta telesailak jaisteko pixka bat egitera etorri naiz. Bestalde, horrelako topaketak lagun zaharrek ikusteko eta berriak egiteko aukera paregabea direla iruditzen zaizkit».



R. CALVO

«Gure artean sortzen den elkartasuna gustatzen zait»

MIRIAM SANCHEZ ›
Bilbo

REBEKA CALVO

Miriam Sanchez bilbotarra iaz egon zen Gipuzkoa Encounterren. **Lehen aldia al da Gipuzkoa Encounterren hartzen duzula parte?** Tolosara etortzen naizen lehen aldia da, baina BECeko Euskal Encounterren ere izan nintzen. Hasieran senarra laguntzeko hartzen nuen parte, baina orain niri ere asko gustatzen zait.

Zer egin ohi duzu?

Kontu desberdinak deskargatzen ditut, nire senarra aldiz, jokoetan aritzen da.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Gure artean sortzen den elkartasuna gustatzen zait. Ekitaldi desberdinetan berriz asko ikasten da.



R. CALVO

«Sortzen den elkartasuna gustatzen zait gehien»

LAURA SANCHEZ ›
Bilbo

REBEKA CALVO

Laura Sanchez Miriam ahizparekin etorri zen Tolosara iaz.

Zergatik hartzen duzu parte horrelako ekitaldietan?

Nire affiziobera duen jendearen topaleku direlako. Ahizparekin, lagunarekin... etorri ohi naiz eta oso gustura egoten gara. Batez ere, deskargak abiadura handian egin ahal direlako etortzen naiz.

Egun guztietan egongo al zarete?

Hiru egunak emango ditugu ordenagailuaren aurrean, lagunak friki samarak garelako uste dute, baina hau da gustatzen zaiguna.